

Aiurri

BETERRI-BURUNTZAKO ASTEKARIA



Teodoro Elizalde andoaindarra ia goizero aritu ohi da pilotan, Kontsejupean

2015eko azaroaren 13a, 459 zenbakia X. urtea Andoainen eta Urnietan doan banatzen da

SASOIKO DAGO LAUROGEI URTEREKIN

Iraganari keinuka Agustin Leitzakaleko mural erraldoian



Herriko artistek mural erraldoia egin dute elkarlanean.

Aurreko larunbatean zabaldu zuten, eta dagoeneko denon bistara ikusgai dago. Andoaingo historiari estuki lotutako hainbat irudi ikus daitezke, artistikoak diren beste batzuekin batera.

[ANDOAIN, 8. ORRIALDEA]



Argazkian muralaren osaketan lanean aritu diren herriko artistak, Angela Esnaola baserritarraren oinordekoekin.



Disko bikoitzaren aurkezpena

Andoaindarrak 400 ekimeneko disko bikoitzaren parte hartu duten eragileek aurkezpena egin zuten, azaroaren 22an egingo duten emanaldiaren atarian.

[ANDOAIN, 8. ORRIALDEA]

Super H elkartearen ipuina

Durangoko Azokarako ipuina aurkeztuko dute, Miren Amurizak idatzitakoa. Ohi bezala, liburuaren irabazirik minbizia duten haurren ikerkuntzarako bideratuko dute.

[URNIETA, 3. ORRIALDEA]

Behobia Donostiako heroiak

Urte beharrean iritsi ziren helmugara, inoizko bero handienarekin ospatu zena. Andoaingo eta Urnietako enbaitzaileak, kirolak atalean.

[KIROLAK, 10. ORRIALDEA]

Biktimen aldeko Udal bilkura Urnietan

Hiru alderdietako kideak, herri eragileak eta herritarrak hurbildu ziren azaroaren 10ean, San Juan plazara.

Hainbat minutuz isilean bilduta egon eta gero, Mikel Pagola eta Consuelo Frutos Udal hautetsiek adierazpena irakurri zuten, txalo artean amaitu zena. Goiburuak zera zioen: "Gure herriak bakea behar du. Pertsona guztien eskubide guz-

tiak errespetatu eta bermatuko dituen bakea".

Biktima guztiak, parekotasunik eta bazterkeriarik gabe, kontutan hartuko dituen memoria sustatzeko konpromisoa hartzen zutela adierazi zuten. Giza eskubideak ororen gainetik daudela erantsi zuten, "giza duintasun, norbanako eta hauen oinarritzko eskubideenganako errespetua beste edozein kausa edo ideia politikoren eta Estatu arrazoiaren gainetik dago".

[URNIETA, 2. ORRIALDEA]



Biktima guztiak, parekotasunik eta bazterkeriarik gabe, kontutan hartuko dituen memoria sustatzeko konpromisoa hartzen zutela adierazi zuten.

Moçambique "Terra sonâmbula"
Diaporama - Bidaiateka
Azaroak 17, asteartea
19:00
Saroben. DOAN
Hizlaria: Martin Zabalo

Gaztegunerieta
gazte Informazioa
Idiazabal, 13 / behea
20130 Urnieta (Gipuzkoa)
Tel.: 943 333 973
gazteinformazioa@urnieta.eus

Asfaltatze lanak herrigunean

Urnietako herrigunean bizi diren biztanleentzat eta kanpotik datozenentzat, Udalak egunotan hainbat asfaltatze lan burutuko direla ohartarazi du. Asteazkenean lanei ekin zieten Urigain kultur etxea eta udaletxearen arteko gunean. Zehazki, Isidro Setien Kaleko 1 eta 3 zen-

bakien artean, Txoritagain auzoko sarreran eta San Juan Plaza inguruetan. Ostegunean, aldiz, Zabaleta kaleko erdigunea asfaltatuko dute. San Juan plazako asfaltatze-lanak, berriz, Iberdrola enpresa bertan burutze ari den kanalizazio-lanak amaitu arte ez dira abiatuko.

Mintzalagunen hitzordua

Mintzalagun eta Gurasolagun egitasmoak euskaraz praktikatzeko egitasmoak dira, euskaraz praktikatu nahi dutenak eta ondo egiten dutenak elkartzen dituenak. Gurasolagun egitasmoak duen berezitasuna da haurrekin batera egiten dela. 2015-2016 ikasturteari hasiera emateko aurkezpen bilera bat antolatu dute.

Azaroaren 18an izango da, datorren asteazkenean, Leikaion arratsaldeko 19:30etik aurrera.

Eskualdeko AEK euskaltegiak bideratzen du egitasmo hori, eta erabilera sustatzearen garrantzia nabarmentzen

dute: "Euskararen erabilera zabaltzeko trebatu egin behar dira hiztunak, eta gaur egun inork ez du zalantzan jartzen hori lortzeko ezinbestekoa dela euskal hiztunekin euskara erabiltzeko aukera izatea. Mintzalaguna ekimenarekin horixe da, hain zuzen, lortu nahi duguna: euskaraz hitz egiteko aukera gehiago sortzea, hau da, euskaldunon arteko elkar ezagutza bultzatzea, hizkuntza gaitasuna eta erabiltzeko ohitura sustatzeaz gain. Horrela, hizkuntzaren kalitatea hobetzea eta erabilera esparru berriak lortzea lortuko dugu".

Memoria eta bizikidetzak aldarrikatu zuten, asteartean

Elkarrekin bat eginda



Udal ordezkariak eta herritarrek bat egin zuten astearte eguerdian deitu zuten agerraldian.

Azaroaren 10a Memoriaren eguna ospatu zen Euskal Herrian, eta Urnietan ordezkariak hiru alderdiek memoria eta bizikidetzak aldarrikatu nahi izan zituzten. Eguerdian elkarretaratzea egin zuten udaletxearen kanpoalde-

an, egun horretarako bereziki adostu duten adierazpena egiteko: "Etorkizuneko bakeak eta bizikidetzak biolentziaren bidegabekeriaren aitortzea eskatzen du, sortutako minaren eta biktimen duintasunaren aitortzea, biktima guztiak egitarako, justiziarako eta erreparaziorako esku-

bidea dutelarik". Bide horretan herritarren inplikazioa eta esku hartzea ezinbestekoak direla berretsi zuten. Bakean eta bizikidetzan sakontzeko asmoz, datozen hilabeteetan Urnietan tailer eta jardunaldi gehiago antolatzen jarraituko dute.

Bideoa: aiurri.com

2007 2008 2009 2010 2011 2012 2013 2014 2015 2016

AIURRI

webgune berria,
esteka berria

.eus

MIREN AMURIZAK IDATZI DU IPUINA, ALMU SALASEN MARRAZKIEKIN OSATU DUTENA

Labean da **Super Hren** ipuina

Urnietako Super H elkarteak ipuina aurkeztuko du abenduaren 4an zabalduko duten Durangoko Azokan. Miren Amuriza bertsolaria gidoilaria da, eta Almu Salas ilustratzailea. Ohi bezala, salmentatik

lortutako irabaziak haur minbiziaren ikerkuntzarako bideratuko dituzte. Ipuinak, bestalde, bigarren helburu bat du: gaitz horri buruzko sentsibilizazioa gizarteratzea.



Arantzazu Miner eta Almu Salas Super H taldeko kideak.

Super H elkarteak Egu-berri hauetarako opari egokia izan daitekeen ipuina argitaratuko du azaroaren amaiera aldera, Durangoko Azokan ere aurkeztuko dutena. **Almu Salas** elkarteko kide eta ipuinaren ilustratzaileak gidoiari buruz aurreratu daitekeena azaldu dio Aiurri astekariari, "liburuaren pertsonaia Hodei haurra da. Askok bezala bizitza normala egiten du, eskolara joaten da, laguntxoekin jolasten du baina egun batean eskolan mina hartu eta ospitalera eramaten dute. Han gaixotasun bat duela esaten diote. Hortik aurrera Hodei bere ametsen munduan murgilduko da".

Elkarte mailan abiarazi zuten egitasmoa, baina argitalpena borobiltzeko Miren Amurizari ipuina osatzea eskatu zioten. **Arantzazu Miner** Super H taldeko kideak adierazi duenez, haur txikiek gurasoen laguntzarekin irakurri behar dute ipuina: "Adin batetik aurrera, 9 urtetik aurrera edo, istorioaren muina ulertzen has daitezke. Horiek baino txikiago diren haurren kasuan gurasoen laguntzarekin irakurtzea aholkatuko genuke".

Ez daude eskuak gurutzatuta egoteko, eta ekimen betean dira. Herriko jaietan murala egin zuten, eta piskanaka datorren urteko mendi maratoiaren prestaketekin hasi dira. Azken asteetan burubelarri sartu dira ipuinaren ekoizpenean. Azkar

"Ipuina Durangoko Azokan salgai izango da, eta Urnietan aurkezpen ekitaldia Eguberrietan egin nahiko genuke"

Almu Salas

batean joan zaie denbora, Salasek aitortzen duenez: "urte erdi edo pasa dela iruditzen zaigu guri, baina egia esan azken bi hilabeteetan jarri gara burubelarri. Sanmioletako marrazki lehiaketarekin hasi zela esan daiteke. Marrazki saio hura ipuin kontaketa bilakatu zen". Eta ipuin hori paperezko edizio txukunean bilakatuko da orain. "Hontz zuriaren lurraldean" izenburupean argitaratuko dute.

Koloretan, eta kalitate handiko paperean, ipuina hamar euroko prezioan salgai izango da laster. Urnietan bezala, Durangoko Azokan ere bai: "Durangoko azokan salgai izango da, eta Urnietan aurkezpen ekitaldia Eguberrietan egingo dugu. Miren Amuriza bertan izatea nahiko genuke. Ipuina, bestalde, Eguberrietarako opari polita izango litzateke". 10 eurotan salgai jarriko dituzte 3.000 ale.

IPUINA ORAIN, UNITATE DIDAKTIKOA GERO

"Gerora, ipuinetik abiatuta unitate didaktikoa lantzea pentsatzen ari gara ikastetxeetan



Ipuinaren irudia, laster kaleratuko dena.

"Hontz zuriaren lurraldean" ipuinarekin minbiziaren sentsibilizazioan sakontzen jarraitu nahi dute

lantzeko. Gure helburuetako bat da ikerkuntza lantzeko dirua lortzea da, baina oso gogoko duguna da gizartea sentsibilizatzea eta horretarako ikastetxeetara jo nahi dugu".

MUNDUAREN AZKEN MUTURREKO EROSLEA

EROSKI online

lurraldearen
%100-era
iristen gara

EROSKI online Supermerkatuan lurraldearen %100era iristen gara eta Euskadiko eta Nafarroako landatar eremu guztietan ematen dugu zerbitzua. Zauden lekuan zaudela ere zurekin egoteko, zure munduaren, gure lurraldearen azken muturrean egonda ere.

eroski.es

Matrikulazioa Galardin

Galardi Udal haur eskolako matrikulatze kanpaina martxan dago 2015-16 ikasturterako. 2016ko urtarriletik maiatza bitartean hasteko deialdia egin dute 0-1 eta 1-2 taldeetarako.

• Matrikulatzeko epea: Azaroaren 23tik abenduaren 4ra, biak barne.

- Orduetgia: 10:00-13:00, 16:30-19:30.
- Argibideak: Bastero. 943 303 540.
- Ate irekiera: Azaroaren 23an eta 30ean, 16:30ean eta 17:30ean.
- Galardi Udal haur eskola: Extremadura kalea 6. 943 300 655.

Laburmetraiak eta musika emanaldia Basteron

Ostiral honetan bi laburmetrai eskainiko dituzte, "Madi eta Patxi" eta "Lamierrekan" izenekoak. Arrate Fernandez zein Ainara Maia laburmetraien egileak bertan egongo dira. Eta, segidan, musika folk akustikoa eskaintzen ari-tuko dira Pantxoa Etxebehere eta Mikel Mujika musikariak.

SINOPSIK

Maddi eta Patxi laburmetraian, hainbat gai desberdin

jorratzen dira: kultur aniztasuna, identitatea, hizkuntza, herrimina, arbasoen arrastak, ingurugiroa, ekologia, lana, sare sozialen erabilera, emigrazioa-inmigrazioa, ...

Lamierreka, aldiz, Leitza-ran haranean murgiltzen da. Errealitatea eta fantasiaren arteko uztarketa da, mitologiaren barnean barneratzeko irudi-bilduma bat.

Ekitaldia 19:00etan hasiko da.

Peña Santakruz elkarte

Peña Santakruz elkarteak oharra helarazi nahi die bazkideei: Bazkideentzako Egu-

berrietako loteria dagoeneko salgai dagoela Bastero loteria denda. Zenbakia: 89194.

Jostailu egokiak aukeratzeko hitzaldia Urigainen

"Nola aukeratu 0-2 urteko haurrentzako jolasak eta jostailuak?" izenburupean, hitzaldia eskainiko du Olatz Aldabaldetreku pedagogoak azaroaren 25ean Urigainen. Arratsaldeko 17:30ean hasiko da, 19:00ak arte.

Izena ematea azaroaren 19a baino lehen egin behar da Galardi eta Bihurri haurreskoletan edo Udaleko Euskara Zerbitzuan (943 300 831). Hitzaldia Andoaingo Udaleko Euskara Zerbitzuak antolatu du.

EAJ-PNV: "Uraren kudeaketa munizipala defendatzea zilegi da"

EH Bildu: "Blokeorik ez dugu onartuko"

Gobernu taldeak ur azpiegituraren arazoari irtenbidea emateko proposamena gerarazi zuten PSE-EEK eta EAJ-PNVk, aurreko osteguneko ez ohiko batzarraldian. Biharamunean Gobernu taldea (EH Bildu) kritiko agertu da oposizioko bi alderdi horiekin, udal jarduna blokeatzen ari direla aurpegiratu: "PSE-EE eta EAJ-PNV ez ziren ados jarri ekainaren 13ko inbestidura saioan, baina dagoeneko ados jartzen hasi dira; argi geratu da udal gobernu honi ez diotela laguntza txikiena ere emango. Egoera bitxia da oso: ez baitzuten gobernatzeko gehiengorik osatu, baina ez dute gobernatzeko utzi nahi ere. Tamalgarria iruditzen zaigu. Gutxiengoan gaudete eta onartu dugu, proposamen

irekiak egin ditugu eta adostasuna bilatu nahi izan dugu. Autokritika egin dugu eta jarra desegokiak zuzendu ditugu. Zein da horren erantzuna? Betikoa: blokeoa, blokeoa eta blokeoa.

Gure aldetik, azken hilabete hauetan izan dugun jarrera ireki bera izango dugu. Malguak izango gara negoziazioan, marra gorri bakarra jarriko dugu: blokeorik ez dugu onartuko".

EAJ-PNVren erantzuna

Jeltzaleak ez datoz bat Gobernu taldeak ez ohiko batzarraldiari buruz egin duen irakurketarekin, eta Ana Carrere alkateak egindako salaketak ukatu egingen ditu: "EAJk denbora luzea darama honen Kontsorzioan sartzearen aurkako jarrera adieraziz. Udaletik zerbitzua-

ren kudeaketa munizipal eraginkorra egitearen aldeko gara. Honenbestez, EH Bilduren aurkako blokeoa baino, uraren kudeaketa munizipalaren defentsa egin dugu. Politikan zilegi da bakoitzak bere iritzia defendatu ahal izatea, eta kasu honetan, uraren kudeaketa Udaletik gauzatzea aukera bideragarria dela defendatzen dugu. Horixe da ariketa demokratikoaren funtsa, norberak bere iritzia defendatu eta gainerakoek errespetatzea.

Ez dugu beraz gobernu taldearen biktimismoa onartuko eta ausartak izan daitezen eskatzen diegu. 2016ko aurrekontuak negoziatzeko eta aprobatu ahal izateko EAJren borondatea adierazi nahi dugu. Negarrerako baino, lanerako deia luzatu nahi dugu".

LORE ESKAINTZA MEMORIAREN EGUNEAN, ELKARBIZIREN ESKUTIK



Blanca Villafañe eta Mari Paz Artolazabal, astearte iluntzeko ekitaldian.

Azaroaren 10ean Euskadiko herrialde askotan memoriaren eguna ospatu zuten, baita Andoainen ere. Elkarbizi taldeak deituta, Lopez de la Calle parkean dagoen 'Askatasunari' eskulturaren aurrean bildu ziren. Mikel Arregik idatzi bat irakurri ondoren, lore eskaintza eta bi minutuko isilunea egin zuten. Ekitaldia, herritarrekin batera, PSE-EEKo eta EAJ-PNVko ordezkariak hurbildu ziren.

S.O.S Sahara

Andoaindik elkartasuna

KUTXABANK: 2095 5022 10 9112818304

Laguntza ematerakoan UHOLDEA hitza jartzea eskertuko genizuke

EZ OHIKO BATZARRALDIA ANDOINGO UDALETXEAN

Udala ez da Ur Kontsortzioan sartuko

Gobernu taldeak uraren kudeaketa osoa Ur Kontsortzioaren esku uzteko proposamena aurkeztu zuen udaletxean, ez ohiko batzarraldian aztertu zena. Erabakia aurrera ateratzeko gehiengo osoa beharrez-

koa zen, alegia, bederatzi boto eskuratzea. EH Bildu, Ganemos eta Irabazi alde agertu ziren. Zortzi boto horiek ez ziren nahikoa izan, PSE-EE eta EAJ-PNVren bederatzi botoak aurkakoak izan zirelako.

“Udalak uraren kudeaketari eusten jarraitu behar dio. Horren aldeko apostu egiten dugunez, aurkako botoa emango dugu”
Maidier Lainez, PSE-EE

“Beti esan izan dugu uraren zerbitzuaren ardura udalarena dela, eta baldintza onenetan emateaz udala arduratu behar dela”
Marijo Izagirre, EAJ-PNV

“Kontsortzioaren aldeko pausoa ematearen beldur direnentzat: Emaitzak ez badira onenak, edozein unetan atzera bota daiteke”
Olga Hernandez, Ganemos

“Udalak zerbitzua hobetu behar du. Une honetan, egoera ekonomiko zail honetan, Kontsortzioan sartzea da onena”
Jorge Mourinho, Irabazi

“Ez ditut jeltzaleen eta sozialisten argudioak sinesten. Beraz, hobe da galerak edukitzea. Beraz, zorpetzea hobe da”
Jon Zulueta, EH Bildu

EH Bilduk zuzentzen duen Gobernu taldeak egoera ekonomikoa bideratzeko egokien ikusten duen proposamena mahai gainean geratu zen, gehiengo osorik lortu gabe. Hiru alderdi nagusien botoak erabakiorrak ziren proposamenarekin aurrera edo atzera egiteko. Aspaldikoak dira gai honetan EH Bilduren aldeko jarrera eta EAJ-PNVren aurkako argudioak. PSE-EEren bost botoak, beraz, erabakiorrak ziren. Plenoa abiatu arte ez zen PSE-EEren jarrera ezagutu. Aurkako botoa eman zuten, gobernu taldearen asmoa zapuztuz. Beraz, botoa emateko garaian ezezkoan bat egin zuten EAJk eta PSEk. Eztabaidan, ordea, elkarren arteko haserrea ezkutaezina izan zen.



Botoa ematerako garaian ezezkoan bat egin zuten EAJk eta PSEk. Eztabaidan, ordea, elkarren arteko haserrea ezkutaezina izan zen.

BOZERAMAILEEN ARGUDIOAK

Eztabaida luzea izan zen, eta ez da erraza guztia laburbiltzea. Bereziki, erreplika garaian beste zenbait eztabaida tartean sartu zirelako. Esaterako, ekainaren 13ko kargu hartze ekitaldia edota 2016ko Udal aurrekontuak. Horra gaiari dagokionez, adierazpen esanguratsuenak.

Maidier Lainez, PSE-EE

“Uraren kudeaketa udal eskumena izatea defenditu dugu. Gobernu taldeak kopuru ekonomikoak helarazi dizkigu eta, gure ustean, Udalak uraren kudeaketari eusten jarraitu behar dio. Horren aldeko apostu egiten dugunez, aurkako botoa emango dugu”.

Marijo Izagirre, EAJ-PNV

“Aurreko agintaldian EH Bilduk ez zuen gai honi buruzko

akordiorik lortu eta zortzi urte atzera sozialistek ere paso egin zuten. Ez zuten arazoa konpondu nahi izan, eta orduan ere arazoa nabarmena zen. Beti esan izan dugu uraren zerbitzuaren ardura udalarena dela, eta baldintza onenetan emateaz udala arduratu behar dela. Baita zerbitzua orekatua izatea, diru sarrera eta gastuei dagokionez. Gaur egun inork ez ditu duroak pezetaren truke ematen. Kontsortzioa hona badator irabaziak ematen dituelako da. Kontsortzioak ateratzen badu, zergatik ez Udalak? Kontsortzioak tasak igoko ditu %40. Igoera hori subentziona-tu egingo duzue herritarrak igoeraren kontziente izan ez daitezen”.

Olga Hernandez, Ganemos

“Guretzat zentzudunena kudeaketa Ur kontsortzioari

ematea da. Guk ez dugu ezkutakeriarik ikusten. Pausoa ematearen beldur direnentzat: hitzarmena errebokatu daiteke. Emaitzak ez badira onenak, edozein unetan atzera bota daiteke Kontsortzioarekin sinatutako hitzarmena. Zaila da egoera honetan tasak igoko direla adieraztea, baina bestela ere berdin-berdin igoko dira. Ezin duguna da herritarrei zerbitzuak hobetzeko aukerarik ez dagoela adieraztea, asmoa ez bada galerak dituen zerbitzu bezala egonkortzea eta ondoren, PPK egiten duen bezala, zerbitzua pribatizatzea.

Herriko biztanleak oso haserre daude, eta arrazoï osoz. Gaur egun, berdin zaigu nork eman duen urratsa edo nork aurkeztu duen egitasmoa. Gakoa irtenbidea ahalik eta azkarraren ematea da”.

Jorge Mourinho, Irabazi

“Garrantzia handiko gaitzat hartu dugu Irabazin. Nola iritsi gara hona? Norbaitek erantzun beharko du, eta iraganean aurreikuspen falta nabarmena egon dela esan daiteke. Udalak zerbitzua hobetu behar du, eta kostua handia da. Inbertsio handiak egin behar dira. Une honetan, egoera ekonomiko zail honetan, Kontsortzioan sartzea da onena”.

Jon Zulueta, EH Bildu

“Ez ditut jeltzaleen eta sozialisten argudioak sinesten. Beraz, hobe da galerak edukitzea, eta ura eskaintzeagatik milaka euro-tako kanona ordaintzea. Beraz, zorpetzea hobe da. Zuen jokabidearekin mailegua eskatu behar dugu, beste zenbait inbertsio egitea galeraziko diguna.

Tasak, batean edo bestean, bai ala bai igo beharko dira.

Eta Kontsortzioan sartzean tasak ez dira hainbeste igoko. Beasain, Elgoibar, Tolosa... Kontsortzioan daude. Ez dira hain eroak izango hango agintariak, ezta? Ikuspegi teknikotik, kudeaketa zaildu nahi diguzue edota zuen alderdietako ardi beltzak zarete? Ikuspegi politikotik honek ez du ez hankarik, ez bururik. Lehen gure jokabidea onartezina zela zenioten. Bada orain mugitu gara, auto-kritika egin dugu, jokabidea aldatu dugu eta zuek sozialistak ez duzue erantzun ere egiten. Ez deirik hartu, ezta emailik erantzun ere. Hori ez da politika egitea. Zein da zuen proposamena? 2011tik hona PSEk ez du emendakinik aurkeztu. Zero emendakin. Hau beste herriren batean pasatzen al da?”.

TENTSIOA ERREPLIKA GARAIAN

Erreplika garaian Lainezek tonoa jaistearren beharra azaldu zuten. Segidan egin zituen adierazpenekin, ordea, Zulueta eta Izagirre haserretzea lortu zuten. Zulueta aurrekontuko hainbat partida (laguntzak presoiei) kendu arte emendakinak aurkeztu gabe jarraituko duela adierazi zion. Zulueta aurrekontuak lantzeko garaian “auto bazterketa”rena maila baxuko jokabidea iruditu zitzaion.

Lainezek Izagirreri ekainaren 13ko kargu hartzean EAJk izandako jarrera aurpegiratu zion. Beste alkatetza batekin gauzak oso bestelakoak izango zirela erantsiz. Ezustean hartu zuten Izagirre, horrelakoak pribatuan esatea hobe dela eta alkatetzan ez badago, ez zuelako nahi izan erantsi zion.

MURALAREN IREKIERA AGUSTIN LEITZA KALEAN

Arbasoak gogoan hartu dituen murala

Andoaingo 400. urteurrena gogoan izateko, arbasoekin eta herriarekin lotutako murala margotu dute Agustin Leitza kalean. Eduardo Arreseigorren gidaritzapean, muralean herriko artista askok pare

hartu du: Sergio Vallejo, Juanan Lazkano, Sebastian Herrero, Margarita Oiarzun, Aiora Arregi, Alejandro Gonzalez, Itziar Gutierrez, Naiara Lasarte eta Ainhoa Markez.

Tela zatiak margotu eta guztiak puzleen gisara kokatu dituzte eraikinetako paretean. Irudian Angela Esnaola baserritarra ikusi daiteke, sardearekin lanean. Horren azpian, Andoain osatzen duten elementuak ageri dira; tunela, eliza, zubia, industria... Baita isilpeko zenbait elementu ere. Margolane-ko irudi batzuk esanahi bat baduten arren, beste asko guttiz irekiak direla adierazi dute: "Sinbologia batzuk itxiak dira eta beste asko irekiak. Sekretu batzuk badaude, baina ez ditugu kontatuko, herritarrek beren iritzia eraikitzea nahi baitugu", azaldu du Eduardo Arreseigor irakasleak.

IREKIERA EKITALDI JENDETSUA

"Segaz moztutako belarra sardeaz biltzen hasi da baserritarra. Sustraiak bere erroetatik erauzi ditu, bere arbasoen izana, gure iraganeko ondarea gurera ekarri. Hontzaren jakintza, aizkolariaren ausardia, langilearen kemena, trenaren trikitraka, arraunlariaren indarra, sorginen aztikeria..." Hitz horiekin eman zioten hasiera muralaren irekierari ekitaldiari.

Orain arteko belaunaldiek 400 urtetan zehar herria sortu eta eraikitzen jardun dutela gogora ekarri zuten. Hori horrela izanik, gerora etorriko diren belaunaldiek ere horrela jarraituko dutela adierazi zuten, "sokak etenik izan ez dezan". Denbora eta sokaren isla da Agustin Leitza kalean margotutako mural hau.

Antzerkiaz gain, Lorratzak taldekoek *Baga-biga* kantua abestu zuten. Ondoren, Axeri dantza taldekoek giza dorrea osatu zuten. Gainera, bertaritutako guztiek bertsoak abesteko aukera izan zuten kantu jirakoan laguntzarekin. Ekitaldi jendetsua izan zen, eta margolanaren handitasunaz eta edertasunaz liluraturik, txalo artean jaso zituzten egileak.



Angela Esnaola baserritarra inspirazio iturri izan da mendeurrenako muralaren osaketan.

ITZIAR GUTIERREZ

"Ikaragarriko esperientzia izan da margoketan parte hartzea.

Eduardorekin urte mordo da-ramatzat pinturan eta berarekin zuzenean lan egitea oso polita

izan da. Horrelako proiektu batean parte hartzea izugarria izan da; asko ikasi dugu. Emai-

"Sinbologia batzuk itxiak dira eta beste asko irekiak. Sekretu batzuk badaude, baina ez ditugu kontatuko, herritarrek beren iritzia eraikitzea nahi baitugu"

tzarekin oso gustura eta emozionatuta geratu naiz. Orain ilusioa egiten dit kalean ikusteak.

Talde lanean aritu gara eta pausoz pauso joan gara, guztia osatu harte: marrazkia egin, fondoak landu, detaileetara pasa... Edu da artista burua, baina guztion artean osatu dugu. Ekaina inguruan hasi giren margotzen eta urrian, tela zatiak paretean pegatzen eta barnizatzen hasi ginen. Telen bidez margotu dugunez, gertuko lana izan da, ez da paretean zuzenean margotzea bezala. Guk ere lehen aldiz gaur ikusi dugu mural osoa bertikalean".

NAIARA LASARTE

"Esperientzia polita izan da. Asko ikasi dugu, baina konturatu gara uste baino denbora gehiago eskatzen duela. Gainera, kontuan hartu behar da murala ez dagoela zuzenean margotuta, tela zatietan baizik. Horrek lientzo itxura ematen dio dio muralari.

Telak lokal handi bateko lurrean genituen zabalduta, eta gutxi gora behera ikusi genezakeen nola geratuko zen. Hala ere, ez da gauza bera horizontalean ikustea edota bertikalean. Guretzako ere sorpresa izan da. Horrenbeste hilabete-etan egindako lana amaituta jendaurrean ikustea zoragarria izan da. Are gehiago, jendea gustatu zaiola ikusita. Talde lanean egin dugu eta oso pozik geratu gara".

MARI KARMEN ARRUABARRENA

"Emozionatu egin naiz murala ikustean. Duela bi urte hil zen izeba, eta txikitako oroitzape-

MURALAREN IREKIERA AGUSTIN LEITZA KALEAN



“Eduardorekin urte mordo daramatzat pinturan eta berarekin zuzenean lan egitea oso polita izan da”

Itziar Gutierrez



“Esperientzia polita izan da. Asko ikasi dugu, baina konturatu gara uste baino denbora gehiago eskatzen duela”

Naiara Lasarte



Ondoren, Axeri dantza taldekoek giza dorrea osatu zuten.



“Emozionatu egin naiz murala ikustean. Duela bi urte hilzen izeba, eta txikitako oroitzapenak etorri zaizkit gogora”

M. Karmen Arruabarrena



“Proposamena jaso nuenean ikasleei taldean egitea proposatu nien. Elkarlanean hasi ginen, eta ondo joan da prozesua”

Eduardo Arreseigor



Lorrazak taldekoek abiarazi zuten ekitaldia, Baga-biga kantua abestuz.

nak etorri zaizkit gogora. Beste mundu bat eta garai bat islatzen ditu muralak: baserria, soroa... Desagertu den mundu baten oroitzapenak ekartzen dizkit. Horregatik, ilusioa eta pena, biak batera etorri zaizkit. Nire ahizparekin harreman estua zuen eta garai hartan familian bizitakoak gogoratzen ari naiz.

Oso ederra da murala. Soineko hori gogoan dugu, baita mantala ere; irudian bezala, atzetik gurutzatuta erabiltzen zuten. Buruko pañoloa ere oso tipikoa da, beti baitzeraman soinean. Aurpegia zimurtuta duela ikusten da, garai hartan gogor lan egin zuen seinale. 60 urte inguru izango zituen orduan”.

EDUARDO ARRESEIGOR

“Alde teknikoari begiratuta, azpimarratu behar da tela bezei baten gainean eginda dagoela. Espainia mailan oso gutxi erabili den teknika da. Gasteizen ezagutu genuen eta hona ekartzea erabaki genuen. AEBn erositako tela bat da, temperatura aldaketek eta hezetasunak kaltetzen ez duena.

Pintura akrilikoarekin pintatu dugu, eta plano baten bidez, horma gainean ipini dugu.

400. urtemugarekin lotutako murala egitea proposatu zidatenean, zerbait artistikoa egin nahi nuenez, taldean egitea proposatu nien pinturako ikasleei. Elkarlanean hasi ginen, eta ondo joan da prozesua. Nire argazki bat hartu nuen oina-

ri bezala eta horren baitan eraiki dugu irudi osoa. Emakume batek sardearekin belarra altxatzen duen bitartean, Andoingo historia osoa altxatzen duela ikusi daiteke, belar azpitik ateratzen baitira herriko sinboloak. Bisualki metaforikoa da, Andoingo historia markatzen dutelako”.

Argazkiak, bideoa: aiurri.eus



ANDOAINARRAK 400 EKIMENAREN ESKUTIK, "ANDOAINEN EGINA ETA ENTZUNA" DISKO BIKOITZAREN AURKEZPEN

Disko bikoitza, Santa Zezilia egunean eskainiko dutena

Sortzaile, musikari, abeslari eta elkarteetako ordezkari bertaratu ziren "Andoainen egina eta entzuna" disko bikoitzaren aurkezpen ekitaldira. Herriko musika ondarearen hainbat pieza eta herriko el-

karteetako ereserkiak biltzen dira, bi diskatan. Azaroaren 22an, Santa Zezilia egunarekin batera, kontzertu batekin aurkeztuko dituzte Basteroko auditorioan.

Esti Mujika kultura zinegotziak esker oneko hitzak eduki zituen diskoan parte hartu duten guztien aganako: "Denek lan polita egin duzue era batera edo bestera, eta eskerrak ematea dagokit Udalaren izenean. Urte berezia izaten ari da aurtengoa andoaindarrentzat, eta disko bikoitzak ere horretan lagunduko digu. Herri honetan badugu musikari lotutako ondare historikoa eta eskuarteak daukagun une beretik berarekin gozatzea egokituko zaigu".

Santa Zezilia egunean, azaroaren 22an aurkeztuko dute. Egun handi horren inguruko xehetasunak azaldu zituen Joxe Mari Oiartzabalek, diskaren grabaketan zuzendaritza lanak bete dituen musikariak. "Basteron, eguerdiko 12:30ean, kontzertua eskainiko dugu diskoan agertzen diren abestiak eskainiz. Horren aurretik orde, Andoaingo kaleak musikarekin girotuko ditugu, grabazioaren berri emanez. 11:30ak aldera Kaletxikitik Olagain txistu elkarteak irtengo da Larramendi biribilketa doinua joz; berarekin batera, herriko zazpi elkarteetako estandarteak, bi danbor jole eta beste bi kupel jole joango dira. Ordu berean Zumea plazatik, Gora Kale Txiki txaranga abiatuko da Basteroruntz; honek ere Larramendi Biribilketa doinua haizatuko du, eta beste zazpi elkarten estandarten eta lau danborjoleen laguntza izango du".

Bi musika "konpainiak" Basteron batuko dira. Eta esan bezala, 12:30etan kontzertuari hasiera emango diote.

KONTZERTUA, MUSIKARI UGARIREKIN

Andoaingo kulturgile, musikari eta musika talde ugari hartuko dute parte kontzertuan: Olagain txistularien taldea, Andoaingo udal musika eskolako banda eta helduen eta



Disko bikoitza aurkezteko agerraldia jendetsua izan zen.

gazteen abesbatzak, Alberto Agirre abesbatza, elkarteetako danbor joleak, Miryan Ulanga piano jolea eta Urki dantza taldea. Lau zuzendariren agindupean jarriko dira, denak ere: Katrin Iturralde, Mikel Emezbabal, Jose Antonio Pascual eta Joxe Mari Oiartzabal.

Kontzertua bi zatitan banatuko dela adierazi zuen Oiartzabalek: "Lehenengoan, Udal musika banda eta elkarteetako danbor joleak beren estandarreetekin igoko dira Basteroko oholtzara, eta elkarteeko ereserkiak interpretatuko dituzte. Honakoak: Agustin Leitza, Batzokia, Errekaburu, Irunberri, Karrika, Kotoi, Hogar Extremeño, Ontza, Olagain, Ongi Etorri, Triana, Santa Krutz Peña, Sociedad Recreativa Andoaindarrak eta Zumeaterra".

